

# UTOPIAREN FASEAK (eta III)

## EZKERRA ETA UTOPIAREN BEHARRA

Lehenago ideologiak esaten nuen bezala, utopia ere behar-beharrezkoa du ezkerrek ("la utopia... es un caso especial de ideología"). Beraz, hemen ere ideologiari buruz hitz pare bat esatea komeniko da. Kolakowskiren esaldi batzuk aldatuko ditut:

"Ideologia, beraz, ez da teoria huts bat, eta ezin daiteke hori izan, errealidadearen ezagutze hutsak ezin bait dezaiote inori ekintzara eragin. Ideologiak balio-judikapenak, edo errealidade-judikapenak, ditu bere barruan; edozein baliojokekiko sinemenaren adierazpen mistifikatua direnak, edo baliojokekiko sinemenaren sendotu beharrari aspiratuta egoteak mamia tajutzen dienak. Horrela ideologia dira, esate baterako, abertzaletasuna, eta baita nazionalismoa ere (hau ez da sentimentu bezala interpretatu behar, Nazioa baliojoke bat izatearen konbentzimentua bezala baizik.). Eta Askatasunaren, Berdintasunaren, Oherearen, Aberriaren, eta betiko salbazioaren dei-hotsak, dei-hots ideologikoak dira. Ideologia dira *doctrina* sozialistak ere, demokratikoak edo liberalak bezalaxe, eta batez ere baliojoke-sistema politiko guztiak bezalaxe" (ik. Kolakowski liburuan, JAKIN 1972, or. 183, Joseba Arrigiren itzulpena).

—oO—

Zergatik behar du ezkerrek, eskuinak ez bezala (eskuinak, aldiz, mitoiak behar ditu), ideologiak gainera utopia? Arrazoik simple honexegatik: berez egiten den iraultzarik eta erreformarik ez dagoelako. Edo beste honela ere esan liteke horixe bera: "aquello que era imposible en un momento dado resultará posible en otro momento distinto tan sólo si fue considerado posible en el momento en que todavía era imposible". "La existencia de la utopia es cuanto utopia es una condición indispensable para que alguna vez deje de serlo" (Kolakowskiren azpimarkatua).

Honela osatzen du Kolakowskik bere arrazoipeides: "La aspiración a la revolución no puede surgir tan sólo en el momento en que la realidad está ya madura para ella, pues las condiciones de esa madurez son, entre otras, las reivindicaciones revolucionarias planteadas a una realidad inmadura. El influir de forma duradera sobre la conciencia es una de las condiciones indispensables de la maduración de la historia para cambios radicales; la utopia es la condición previa de las revoluciones sociales; las aspiraciones irreales son las condiciones previas necesarias de las aspiraciones reales. Por ello la conciencia revolucionaria no puede contentarse con intervenir en los cambios que están teniendo ya lugar; no puede seguir tan sólo el paso de los acontecimientos, sino que tiene que ir delante de ellos, cuando todavía no es posible ni planificarlos ni prevenirlos".

(Honekin beste hau ere adierazi nahi da: kontzientzia —ad casum, literatura edo artea— beti gertakarien atzetik datorrela, errealidadearen dagoenaren erreproduzitzaila hutsa dela, eta horregatik beti atzerakoa dela, dioen tesi sasi-materialista, baitespen global bezala, faltsua dela. Hala baizit, utopiarik ez litzateke posible izango hura obratu eta gero arte, eta orduan ez litzateke utopiarik izango; etorkizunari buruz, batik-bat, ezer berririk pentsatzerik ez legoke, eta etorkizunaz pentsatuko litzatekeen guziaz, iragandako gauzen erreproduzio soil izango litzateke. Dударik gabe, berezkuntza asko egin beharko litzateke, pentsamentua —ad casum, literatura edo artea— noraino den kreatzaile eta noraino berritzaile, zer den han erreproduzio eta zer antizipazio, argitzeko).

## EZKERRA ETA UTOPIA BIGARREN FASEAN

Hemen gauzak asko konplikatzan dira: guk geuk darabilzigitu buruhausteak ikusi besterik ez dago.

Esan bezala, utopiak bigarren fasean, mugimendu baten kontzientzia bilakatzen denean eta, beraz, haren praktika inspiratzen duenean, astiro-astiro programa baten gorputza hartzen du. Utopiaren parte batak bakarrik egin dezake hori, egia esateko. Baina utopia dena gelditzen da konprometatuz. Gorputza eta arima bezalatsu dira utopia eta programa: bizitzaren, hots, gauza beraren bi ikusalde bezala. Elkar osatzen eta errealizatzen, baina era berean elkar ukatzen duten gauza berberaren bi alderdi.

Honez gero utopiak badu ekintza baten sostengua. Hau da: "ezkertarren ostea bi gizataldeak osatzen dute: intelektualek batetik (gogotariak, gogoeta-zaleak, pentsaera-gizonak eta artistek), ezkerta ostenaren eragile, datorkeena sumatuz eta aldeez aurretik adieraziz jokatzan direla; eta ekintza gizonak bestetik, sumatutako hori gero historian obratuz ari" (Exilardegi). Intelektualaren eta ekintzaren arteko bikoiztasun hau ez da utopiarik eta programaren arteko bikoiztasunaren berdin-berdina, baina funtsean hari dagokio.

Utopia eta ekintza elkarri eraginez desarrolatuko dira idanik. Elkarri eraginezko bion historia hau mila modutan desarrola daiteke. "Errealismoak" utopia lotzea, gauza aski korritzea da, eta noizpait horixe izaten da iraultza gizonen patua ("Revolución permanente" hura asmatu arte). Aldrebes, utopiak ekintza lardaskatu eta hodeiez hodel eraman ere egin lezake, denboraldi batez, iraultza Don Kixoteren abenturatan abenturatuz. Batez ere ekintzarako baldintzak zailak direnean, gertatzen da azkeneko hau: kompensazio moduan, behar bada; edo bairuak oraindik burruka heroikoa izan beharra dadukalako ere bai.

—oO—

Hemen sortzen diren tirandura batzuetaz hitzegi-kan gara (intelektualaren eta ekintzaren artean, adibidez). Utopia arrunta mugimenduren kontzientzietara allegatzen denean, eta, beraz, mugimenduen bere programa lantzen duenean, ezinbestekoak dira tentsioak ezkerren barruan. Urrutiko helburuetan denak batera samar datoz. Baina politika ez da urru-


tiko helburuekin bakarrik egiten, xede hurbilekin baizik. Hau da, utopia zatika gauzatzen da eta betetzen da errealidadean. Halare, dena batera lortu nahi duenik, urrutiko helburuak oraintze eta kolpe batekin eskura nahi dituenik, ez da faltako. (Honek, teoriarik, metafisikarako joera edukiko du: gauza guztiak batera konpontzen dituen kolpea non jo behar den, bilatuko bait du, hots, gaitz guzien azkeneko sustraia). "Iraultzagileak", hitzaren esanahi osoan, hauxe dugu: bera bait da dena eta dena batera eta bat-batean iraultu eta konpondu nahi lukeena. Ezkerren ezkerria da hau, ezker jakobinoa: ia inoiz nagusitzen ez dena, baina ezkerrek bere baitan behar-beharrezkoa duena. Beronek zaintzen bait du utopiaren "su sakratua" bizirik. Bestela erreformismo hutsaren eroriko litzateke.

Radikalok indar asko badute, mugimendua egin-kizun inposibleetan sarrarazteko arriskua dago. Eta orduan gerta daiteke, burrukan irabazirik eta aurreperenik ikusten ez denean, utopia altnegiakin jendea desanimatzea eta konformista bihurtzea. Horregatik ere ez da arrazoirik gabekoa, ezkerreariak eskutina (eskutina beti "errealista" izaten bait da) irimotzen duen susmoa. Baina badago okerragorik, susmo honetarako: burrukan nekezean utopia radikalek zenbait jende itisu-ituki burruka-forma guziz radikal eta kaltegarrietara eramatea, gerta daiteke. Hanei gerta da-kiekeen onena, sakrifizio askoren ondoren ez nagusitzea, litzateke. Zeren-eta, aginipiderik lortuko balute, ikaragarria izango bait litzateke Terrorrea. "Surge, por tanto, el peligro de que la utopia se muestre tan inadecuada a la realidad que el intento de imponerla al mundo asuma la forma de una horrible pesadilla cuya realización llevaría a una desfiguración monstruosa del mundo; es decir, a cambios socialmente perjudiciales, peligrosos para la libertad del hombre. En este caso, la izquierda que lograra realizar esos cambios se transformaría en su contrario, en la derecha; pero también la utopia dejaría de ser utopia y se transformaría en mera palabrería, justificadora de cualquier praxis del momento".

Alde guzietatik dande arriskua. Utopia eta errealismoa bateratu beharra dago, hortakoz, mugimendu batek aurrera iritengo badu. Baina nola egin hori? Hemen ez dago errezeta jakinik.

Gauza bat litzateke inportantea: denok hortan b-entan saiatzea.

JOXE AZURMENDI



## URTEROKO NOBELA LABUR SARIA

### "KARMEL" ALDIZKARIAK ERATUTA

Aurtendik aurrera, iragarrita dagoenez, «KARMEL» aldizkariak urtero emango du nobela laburra deritzaien irakurgaririk onenari dagokion saria.


SARIA: 20.000 pezeta.

Lanak biartzeko epea: ekainaren 15.

Nora bialdu: «KARMEL» aldizkaria. Karmen kalea, 2'garrena.

EIBAR (Guip.).

Saria emango da: Uztailaren 19an, ostiralez.



ERLOJU ETA BITXITEGIA

**Eduardo Chopetia**

Getaria, 10 - Urrutzikifia: 417751 - Etxekoa: 422700 - DONOSTIA



# YOGUR GURELESA

GOGOZKOENA

